

gertatuko dira. Zehazki, hamar kide «bitxik» osatzen dute tripulazioa: ehaziri lanak egitea maite duen kastorea da bat, eztei tartak besterik egiten ez dakien okina beste bat —Carrollen *alter ego* omen—... Dena dela, denek dute ezaugarri bat komun: guztien izenak hasten dira *b* letraz.

Lander Majuelo Pamielako editorearen arabera, *Snarkaren ehi-zan* da «genero zentzugabearen adibide gorenetakoa bat». Besteak beste, dioenez, genero horrek aldarrikatzen duelako istorioak ez duela zertan mezu argi eta zuzen bat eduki, eta hori ageri-agerikoa delako Carrollenean. Idazleak berak argudiatu zuen obrak ez dakarrela mezu ezkuturik gordeta, edo, «baldin bazuen halakorik», berak ez zekiela zein zen. Editorearen hitzetan, akaso hori da obraren alderdi erakargarrietakoa bat: deus ez dela oso argi. «Ariketa bera da interesgarria».

Bestalde, Lopezen esanetan, eta Carrollek berak aitortu zenez, autore beraren *Ispiluan barrera*-ko lehenbiziko kapituluaren ageri den poema batean du abiapuntua liburuak: *Jabberwocky*. Horregatik, eranskin modura gehitu dute, eta hau du azken ahapaldia: «Erretsaldea zela, tobo likarinek/ mazelan girokopa eta ginbaleta;/ borogoboak zeuden abahulduta eta/ arrata etikatek marrusin zegiten». Egiazki existitzen ez diren hitz batzuk ere jaso zituen olerki horretan Carrollek; «maleta-hitzak». Alegia: bi esanahi biltzen dituzten eleak.

### Norentzat idatzi

Liburua zer generotan sailkatu, horra poema bildumak berekin dakartzan anbiguotasunetako bat. Majueloren arabera, idazleak haurrak zituen buruan, eta propio ere adierazi zuen hori. «Ziur nago ume askok irakurriko dutela atseginez eta bihotzez, eta nik idatzi nueneko adore berberaz», idatzi zuen liburuari jarritako eranskinean. Are gehiago, Carrollek eskaintza berean adierazi zuen poema bilduma Gertrude Chatawayrentzat zela, urtebete lehena go ezagututako neskatoarentzat.

Obra hau haurrentzako idatzi zelako ideiak sor dezakeen harrituraren jakitun-edo, Majuelok iradoki du litekeena dela orduko haurren irakurketa maila «oraingoena baino handixeagoa» izatea. Eta iritzi dio seguruenara helduentzat ere aritu nahiko zuela Carrollek. Haren lanek helduengan sor dezaketenaz, ezagun dira Virginia Woolfen hitzok: «Bakarrik Carrollek erakutsi digu mundua haur batek egiten duen bezala, eta soilik berak eragin digu haurren modura egitea irri». ●

### KRIKA

## Ahantzuratik azalera

Irati Majuelo

**A**spaldian jazotako gertakari aztoragarri bat, urteak gordeta, ezkututa egon ostean, gutxien esperotako uanean itzul daiteke memoriara, gorputzera. Ahantzuratik azalera, iraganetik orainera. Hala gertatu zaie Pello Lizarraldearen azken eleberriko protagonistei, larunbat arratsez saltoki gunean denbora-pasa ari zirela. Bat-batean eta ohartzeke, 22 urte atzera egin dute jauzi.

Bi ahotsek txirikordatzen dute nobela honek dakarkigun istorioa. Bata, borroka armatuko kidea, une batetik bestera mendian gora ihes egin beharko duena. Bestea, bailara bakartu samar bateko medikua, herriz herri kontsulta pasatzen duena, iheslariak bere autoa geratu



'LANBROA'  
Idazlea: Pello Lizarralde.  
Argitaletxea: Erein.

eta harekin muga gurutzatzen behartzen duen arte. Gertaera berberak azaltzen dizkigute biek ala biek, bakoitzak bere oroitzapenetatik, iraganen bizitako berreraikitze asmoz. Errepidean, basoan, herri sarreretan, lanbroa bidelagun (edo aurkari) dute mugaren bila elkarrekin ibilitako ordu luzeetan, eta ondorioz, kon-

takizuna bustitzen dute aldiro lainoaren joan-etorriek. Hala, orainaren metafora gisa uler liteke, memoriaren eremu lanbrotsuetan barrena ari baitira bi narratzaileak, nor bere errelatoan.

Lizarralde memoriari, ahazteko gaitasunari buruz hausnartu nahi izan du liburu honetan, lanbroaren irudi anbiguo eta opakua probestuz. Hala ere, kontrastean, bi pertsonaiek zehaztasun handiz eraikitzen dituzte beren istorioak, zalantzarik gabe. Ildo horretan, bataren bizipenak ez dira bestearekin kontrajartzen, ez dago diferentzia esanguratsurik, gizonaren ihes egiteko larritasuna eta emakumearen izu-ikara gorabehera. Aipatu behar da, alde horretatik, gertakizunari buruzko bi ikuspegi edo biziera azaldu nahi izan diren arren, espazioan zehar egindako

ibilbidea eta tentsio egoerak sorrarazitako sentsazioak hain paretsuak izanik, sarri errepikakor gertatzen direla liburuaren zenbait pasarte. Beraz, idazleak hautaturiko bi ahotsen apustua lausotu egiten da.

Soilik bereizitakoan hartzen dute kontakizunek norabide desberdina, jazotakoari tamaina hartzeko uanean. Amaieran, alabaina, gogoeta antzekoetan egiten dute topo bi protagonistek: ahantzura bizirauteko tresna gisa baliatu arren, iraganaren zama ezin askatuta aurkitzen baitute euren burua. Orduan helden zaie eleberriaren muina diren galderei: nahieran ahaztu edo gogoratzeko gai al gara? Zer egin denbora luze gordetako oroitzapenekin bueltan datozenean? Zalantza airean uzten du Lizarralde, edo lanbro artean, beharbada. ●


### KRIKA

## Anbibalentea

Imanol Mercero

**B**atzuetan gertatzen zait monotoniak itsu bihurtzen nauela. Ofizioz hainbat liburu pasatzen dira nire begien aurretik, eta zentzumenak sorgortuta amaitzen dut. Zorionez, irakurketa mintegi batean parte hartzen dut (eskerrik asko, Galtzagorri!) eta bertan egindako berrirakurketetan begietako lausoa kentzen zait, kasurako Eric Carleren lan honekin, hausnarketa zorrotzak plazaratu zituzten Elena eta Itsasoren laguntzaz. Bihoakie nire esker ona.

Kontakizuna ingurune naturalean eraikitzen da, etxe abereak nagusi diren leku batean, baina armiarma bezalako protagonista deseroso batekin. Egilearen ofizioa lagun, azalean armiarma anbibalentea dakusagu, izugarria, bai, baina baita irrigarria ere, hanka iledun horiekin eta mozolo aurpegi horrekin.



'ARMIARMA OSO LANPETUTA DAGO'  
Egilea: Eric Carle.  
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni.  
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.

Baldin eta ilustrazioen papera fundamentalak bada albumetan, Carleren lanetan are eta gehiago, emozioak birbideratzeko gaitasuna lortzen duelako formak eta testurak guztiz baldintzatzen dituen bere collage-teknika ospetsuarekin. Armiamaren irudiarekin nabarmen gertatzen da: irudia hondo neutro (zuri) batean eraiki da, alde aurretik kolore bizi eta distiratsuetan margotu eta estapanatu diren txatalekin, garbi antzemateko moduan, nagusiki angeluzuzena den emaitza sortuz. Irakurleak har dezake, beraz, ikono baten aurrean egotearen

distantziatzeko jarrera lasaigarria, piezak agerian dituen eraikuntza bat naturalismotik oso urrun dagoelako, eta aldi berean forma eta kolore horien estetika berdingabearekin atsegin hartu. Horra maisulana.

Esaten ari ginen kontakizuna natura-ingurune batean gertatzen dela, zehazki hurrenkera honetan agertzen diren hamahiru pertsonaia hauekin: eguzkia, armiarma, zaldia, eulia, behia, ardia, ahuntza, zerria, txakurra, katua, ahatea, oilarra eta hontza.

Armiarma amarauna iruten hasten denean abiatzen da ipuina, errepikapenezko dinamika batean. Orri biko bakoitzean, banan-banan, abereengandik jasotzen dituen eskaintzei ez entzurenarena egiten die, harik eta oilarrak armiamak entzun nahi duen hori esaten duen arte: «Euli gogaikarri bat harrapatu nahi?».

Eskema errepikatu honetan, lehenik animaliak bere

hotsa egiten du, jarraian narratzaileak azpimarratzen du, eta azkenik jarduera proposatzen du, halatsu: «Iiiiiii! —irrintzi egin zuen zaldiak—. Itzuli bat egitea nahi?». Ematen du haur irakurleak mekanika ikasi ahala onomatopeiak esateko grinaz ariko dela.

Hainbeste albumetan erabili izan den egitura honi ezohiko amaiera erantzen dio egileak, aldarrikatu nahi duen ideia azpimarratzeko edo: oilarrarekin kontakizunaren gailurra erdietsi arren, hontza agertzen da haren ostean, armiamak berriz ere errefusatuko duen proposamen batekin. Izan ere, ipuintxo honen mezu nagusia jarraiketasunari egiten zaion gorazarrea da, ahaleginari eta ondo egindako lanari eustea, distraitzeko tentazioa ezentzunez.

Amaitzeko, kasu egin armiamaren hariari, tinta puztu batez markatua dagoelako, hatz muinekin erraz antzemateko moduan. ●